

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

HORNITZAILE/BAZKIDE NAGUSIAK ETA HAIEN GARRANTZIA

Hornitzaileei dagokionez, bolondresak izango dira denak. Hau da, gure proiektua atsegin eta babesten duten horien borondateari esker bilduko dugu beharrezkoa dena. Beste era batean esanda, jasoko genukeen guztia haien eskutik lortuko genuke. Bilketa honen bitartez denetariko jendearentzat bideratutako produktuak jaso nahi ditugu. Ondorioz, prozesu hau errazteko asmoarekin, hiru taldetan banatu ditugu: umeentzat, helduentzat eta adinekoentzat.

Umeentzat bideratutako gehien eskatzen ditugun produktuak hurrengoak dira: margotzeko eta ikasteko materialak, jostailu atsegingarriak, peluxeak eta umeentzat gustuko izan daitekeen edozer gauza.

Bestalde, helduentzako ditugun eskaera nabarmenenak egunerokoan ezinbestekoak diren produktuak dira. Adibidez: janaria, erabiltzen ez den arropa, hotzerako mantak etab.

Azkenik, adinekoentzako eskertuko genukeena haiei konpainia egiteko bolondresak da. Ulertzen dugunez, konpromezu hau ez dela erraza, liburuak ordezeko ona izan daitezke.

Bilketa hau ondo atera dadin, leku bat izan behar dugu. Leku hau, proposamen bezala, Iturralde parkean dagoen GREENS kafetegia aukeratu dugu. Kafetegia hau, Beasaingo herrian oso ospetsua denez, pertsona gehiagoren atentzioa deitu dezakegu. Pertsona gehiagoren laguntza izanez, gure ekintza hobeto atera daiteke.